

GIZA-ESKUBIDEEN AGIRIAREN XX-gn. URTEA OSPATUAZ, ABOGADU GAZTEEN VI-gn. NAZIO-ARTEKO BILKURA IZAN DA BARCELONAN, 1968-KO URRILAREN 8-TIK 11-RA. ETA, GEHIENEN IRITZIAK BILDUAZ, ERABAKI HAUEK ONHARTZEN DITU:

- 1.—Herri guztiek Erresumaz Batuen Erakundeko Giza-Eskubideei buruzko konbenioak izenpetu eta onartu ditzatela, eta konbenio haietan dauden arauak egokitu dezatela beren legedi positiboa.
- 2.—Giza-Eskubideen nazio-arteko Hautitegi bat sortzearen beharrezan ikusten da, ditezken lege-austeak epaitzeko eta bere erabakiei eragindarra emateko.
- 3.—Agerian jarri nahi du, preso politikoak, lurralde batzuetan, gaur egunean sufritzen dituzten bidegabeko diskriminazioak ezeztatzeko daoen premia.
Detentzioaren une hartatixe abogadu defenditzailearen esku-sartzea zaindu eta baita ere detentiuaren eta haren defentsa duen abogaduaren arteko hartuemanari askatasuna eta segetua garrantzitzeko beharrezko bideak hartu.
Preso politikoaren kondizioa legez haintzat hartzea, eta «preso soilen» baitegietan ez-baino leku berezietan bere zigorraldia, askatasunik-eza alegia, bete-araztea.
Aldez aurretiko espetxaldiak galerazi, zuzengabekeriz luzatuak askotan preso politikoentzako.
Hitzek eta egitez gogor hartzeak oro kendu.
- 4.—Giza-Eskubideak gerizatze, nahi-ta-nahi-erako bide bakarra bezela, lurralde guztietan eskubide eta tribunal berezi horiek kentzearen alde azaldu zan Bilkura
- 5.—Bilkurak destakatzen du lege-bideak bilatu behar dirala administrazioak administrazio-eginkizunetan parte-hartze hori lege-segurtasun handiago bat dakarken errealitate bihur dedin.

- 6.—Sindikato-Organizaziorako OIT-ek emandako arauak, haren barruan dauden herri guzietan onartu ditzatela azentuatzen du Bilkurak, eta baita ere giza-legediak oro, saiets guzietarik, Organizazio honek eskatzen duen erara tajutuak izan ditezela.

Zeraren alde agertu zan, alegia, Alkarkizun-Eskubidea, sindikatoari dagokionez, legedi positiboetan, printzipio hauek onartuaz eta aplikatuaz gauzatu dedila:

a) Sindikato-askatasuna.

b) Klase-sindikatoak eratzeko pertsona guzietan eskubidea, aginteagandik erabat aske, beren interesak gerizatzeko.

c) Maila guzietako ordezkotasuna, autaketa demokratikoaren bidez.

d) Oporraldi edo huelgarako eskubidea eta edozein giza-pertsonak egin dezaken sindikato-lana erreprimitzeko legeak oro deuseztu-beharra.

Sindikato bat edo ugari, hori interesatuei dagokien hauzia dela uste du Bilkurak, eta, beraz, aginteak, legez, ezin dezakeala hori muga.

- 7.—Herri guztietan «egoera berezia» deklaratzeko Legediari lotua egon dedila, eta, horregatik, bai egoera berezi horren deklarazioari berari eta bai hori jasan behar duten giza-eskubideen garantiari gagozkielarik, mota guztietako gobernu-erabakiak azter ditzaketan Justizia-Tribunaletara joteko edozein pertsona soilaren eskubide bortxatuzina aseguratu dedila.

- 8.—Bilkurak gogo beroz erabakitzen du Jose M.^o Pi y Suñer eta M. René Cassin jaunei zorionak ematea, Kennedy 1968 sariagatik lehenengoari, eta bigarrenari, Bakearen Nobel 1968 sariagatik.

(MUNDO —26.X.68 - n.º 1.486— aldizkaritik Joan Mari Torrealdai euskeraztua)